

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 259. alea - 2021eko otsaila



ITZIAR AIZPURUA


“Burgosko Prozesuan Euskal Herria munduan ezagutarazi nahi genuen”



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

EUSKAL OKELA
CARRER DE VALDARRO
DE GARRIDO
DE LA PARRA
EUSKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Entorno Registrado Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



50 URTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

AURKIBIDEA

4

GUTUNAK

“Gutxieneko pentsio duinaren alde”;
Osasun Haziak taldea esker onez

6

KOLABORAZIOA

Jo Ta Su Boxing
Debako taldea,
Herrikoak Berriketan
atalean

10

ELKARRIZKETA

Itziar Aizpuruarekin
solasean,
Burgosko Prozesuaren
50. urteurrenaren harira

13

ALBISTEAK

Oinezkoen pasealekua
Ondarbeltzetik
Debako zubirainoko
errepide zatian

16

B. GAZTEA

June Etxabe gazteari
elkarrizketa,
ahozkotasunari
buruzko tailerra...



Arg.: GFA

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK



DEBAIKO UDALA



Herakuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Herakuntza Politikoaren Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatzza Euskara Elkarteak. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Pentsiodunak plazan, gutxieneko pentsio duinaren alde

Hilabete honetan hiru urte bete dira pentsiodun talde bat pentsio duinen defentsan lehen aldiz kalera irten zenetik. 2018ko urtarrilaren 15ean, astelehenean, izan zen. Deialdia WhatsApp bidez egin zen, eta Bilboko udaletxeko eskaileretan elkartu ziren. Orduz geroztik, herri askotan, astelehenak pentsiodunen mugimenduaren erreferente bihurtu dira.

Deba-Itziarren ere aldarrikapen hauek kalera atera nahi izan ditugu eta, asmo horrekin, joan zen urtean pentsiodun talde bat hasi ginen elkartzen. Martxoaren 4an hitzaldi bat antolatu genuen Elgoibarko pentsiodunen bi partaide gonbidatuz. Ondoren, konfinamenduak gure planak zapuztu zituen eta, saiakera batzuk egin ditugun arren, orain arte ezin izan gara plazara irten.

Urtarrilaren 11n egin genuen lehen elkarretaratzea; arrakastatsua gure iritziz, 50 lagun baino gehiago elkartu baikinaren bertan.

Badago zer aldarrikatua: pentsiodunen % 56,7k 1000 euroz azpiko pentsioa du hilean, are okerragoa da emakume alargunen kasuan, % 90,6 pobrezia mugan bizi baitira. Europako Gutun Sozialak 1080 euroan finkatu du gutxieneko pentsio onargarria: Hego Euskal Herriko batez besteko soldata garbiaren % 60, Europako gomendioen arabera, pobrezian ez erortzeko bermatu beharrekoa.

Hurrengo urteetarako baldintzak ez dira hobeak: Toledoko



Itunaren ildotik murrizketak eta erretiro-adina eta kotizazio-urteak luzatzea iragarri dute. Bestalde, badago zer hobetu egoitzetan eta eguneko zentroetan, bai plaza kopuruari dagokionez, baita egoiliarren eta langileen baldintzei dagokionez ere; gizarte zerbitzuak indartu... eta abar.

Talde irekia gara: interesa duen edonork har dezake elkarretaratzeetan parte, ongi etorria izango da. Foruen plazan izango gara hileko lehen eta hirugarren astelehenetan, 12:00etatik 12:15era. Hurrengo elkarretaratzea martxoaren 1ean izango da. Animatu zaitzete!

Deba-Itziarko pentsiodunak

Mila esker gerturatu zareten guztioi!



Batek baino gehiagok adierazi digu bere esker ona zikloa antolatzearen; horregatik, lerro hauen bitartez esker on sentimendu hori bera itzuli nahi dizuegu "Osasunaz beste begirada bat" izenburupean antolatutako hitzaldi eta saioetan parte hartu duzuen herritarroi. Izan ere, ez da gutxi garai hauetan inertiak astin-



du eta osasuna geure kabuz zaintzeko bidean abiatzea. Eta bide horretan informazioa jasotzeak asko laguntzen duela izan zen gure gogoeta.

Horrez gain, tartetxo hau baliatu nahi genuke beste ekimen baten berri emateko. 5Gari buruzkoa izan zen lehenengo hitzaldia eta bertan entzundakoez kezka-



turik haren luzamendua eskatzeko urratsi ekin die taldeak. Beraz, sinadura bilketa jarri dugu martxan. Arkatza, Masillo, Euskalinpri, Maxi, Ieraenea, Sasoiko eta Burugorri daude sinatzeko orriak. Gerturatu eta informatu zaitzez, gure etorkizuna benetan gure eskuetan egon dadin.

Osasun Haziak taldea

Toledoko Ituna: pentsio-sistema publikoa defendatzeko abiapuntua

Agerikoa da alderdi politikoek pentsio publikoen inguruan proposamen desberdin eta urrunduak dituztela; baina azkenean, azken akordioa lortu zenetik hamar urte igaro eta gero, Toledoko Itunaren Batzordeak akordio zabala lortu eta pentsio publikoen erreformatzeko gomendio berriak ezarri ditu. Argi dago pentsiodunen mobilizazioek izan dutela horretan zerikusirik.

Jakina da horrelako itunek argi-ilunak izan ohi dituztela; baina, inolako zalantzarik gabe, lehen baino egoera hobean gaude, akordioak egungo pentsiodunei eta etorkizuneko ziurtasuna ematen baitigu. Eta, bereziki azpimarratu beharra dago, akordio horrek belaunaldien arteko banaketa-sistema baten aldeko apustu irmoa jasotzen duela; beste behin ere, kapitalizazio-sistemak erabiltzea baztertzen duela, eta sistemaren printzipioak berresten dituela: **unibertsaltasuna, batasuna, elkartasuna, berdintasuna eta nahikotasuna**.

Nolanahi ere, itunak aitortza garrantzitsuak egiten ditu: pentsio-sistema jasagarria dela dio eta, horrez gain, 2013an onartutako IRPk (% 0,25eko igoera) ez duela behar adinako adostasun politiko eta sozialik azpimarratu eta pentsiodunen eroste-ahalmena mantentzea defendatzen du. Pentsioen balioa urtero KPI erreala-aren arabera handitzea, eta hori legez bermatzea ere eskatzen du hitzartutako dokumentuak.

«Pentsioen itsulapikoa» berreskuratzearen aldeko apustua egiten du; pentsiorik baxuenak hobetzea proposatzen du; nekazari eta etxeko langileen erregimenak erregimen orokorraren baitan sartzearen inguruan sakontzen du; langile autonomoen erregimen bereziko eskubideak eta betebeharrak erregimen orokorrarekin parekatzeko bideak jartzen ditu; 55 urtetik gorakoak kontratatzekeo pizgarriak ezartzen ditu; ez du erretiroaren oinarri arautzailea kalkulatzeko urte kopurua gehiago handitzen, eta zenbatekoak hobetzen ditu onuradunen kotizazio-urterik onenak aukeratzeko askatasuna ematerakoan. Kontuak egonkortzeko hautua ere egiten du, Estatuaren maileguak zorrik sortzen ez duten ekarpenekin ordezkatzeko eta ez dagozkion gastuak kentzerakoan. Izan ere, Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik finantzatzea proposatzen du. Halaber, kontuen finantzaketa iraunkor eta jasagarriaren aldeko apustua egiten du, pentsio kontributiboak finantzatzeko kotizazioekin aski ez denean, zergen bidez egiteko aukera indartzen baitu.

Gainera, generoaren arabera pentsioen arrakala desagerrarazteko hainbat neurri ezartzen ditu. Batetik, pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko urte kopurua 2022tik aurrera 25 urtera luzatzeak izan dezakeen eragina ebaluatu egin behar dela esatean, luzatze horrek pentsioen genero-arrakalan izan ditzakeen ondorio negatiboak aintzat hartzeko eta arintzeko arreta berezia jarri behar dela adierazten digu. Bestetik, pentsiorik baxuenak dituzten artean emakumeak gehiengo direnez, berdintasun-politika orok pentsio ez-kontributiboaren sistema berrikustea ez ezik, gutxienez osagarriak eta alarguntza-pentsioak berrikustea ere eskatu beharko lukeela dio, berme-atalase unibertsala, nahikoa eta duina progresiboki bermatzeko. Eta, horrez gain, neurri estrukturalak gomendatzen ditu lan-eremuan benetako berdintasuna bermatzeko; zaintzaren gaiari heltzeko; ordainsari-berdintasuna lortzeko (funtsezkoa pentsioak parekatzeko orduan), eta kotizazio-hutsuneak betetzeko. Jakina, horrek guztiak etxeko enpleguak eta inork nahi ez dituen lanaldi partzialeko enpleguak azaleratuko ditu. Emakumeengan eragin handiagoa dutenak, hain zuzen ere.

Bestalde, benetan deigarriak dira itunaren alde negatiboak: ez da Konstituzioaren blindatzea aurreikusten; ez da iraunkortasun-faktoreari buruzko aipamenik egiten; gehieneko kotizazio-oinarrien inguruan aipu bakarra dago, ahul samarra: *“gehieneko kotizazio-oinarrien eta gehieneko pentsioen artean beharrezko oreka gorde behar da, sistemaren dimentsio solidarioa kaltetu gabe, eta harreman hori legez ezarri behar da, modu argi eta egonkorrean”*.

Beraz, ez du gehieneko kotizazio-oinarrien muga kentzeko berariazko neurririk zehazten.

Azaldutakoaren ondorio gisa, esan dezakegu lortutako akordioa helmuga bat baino abiapuntua dela, eta pentsioak erreformatzeko lantzen ari diren lege-proiektuek Toledoko Itunaren gomendioak kontuan hartzea nahi badugu, aldarrikapenekin jarraitu beharko dugula. Eta, bide horretan, lehentasunak zeintzuk diren argi dugu: alde batetik, gutxieneko pentsioen erosteko ahalmena hobetzea eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea; eta, bestetik, iraunkortasun faktorea indargabetzea.

**“Lantzen ari diren
lege-proiektuek Toledoko
Itunaren gomendioak
kontuan hartzea
nahi badugu,
aldarrikapenekin jarraitu
beharko dugu”**

Debako Udaleko
CCOOeko Atal Sindikala



HERRIKOAK BERRIKETAN

KOLABORAZIOA

JO TA SU BOXING

Jo Ta Su Boxing Debako boxeo elkarte gara. Idatzi honen bidez Debako herriari geure burua aurkeztu, gaur arteko ibilbidea erakutsi eta etorkizunari begira ditugun erronkak azaltzea da gure asmoa.

Kirol elkarte bezala 2019ko uztailean sortu ginen ofizialki, nahiz eta gure kirol-jarduera 2020ko martxoan hasi genuen, Debako Gazte Asanbladarekin harremanetan jarri eta haien laguntzaz martxan hasteko aukerak ikusi ondoren. Horregatik, bide batez, eskerrak eman nahi genizkioke Debako Gazte Asanbladari, haien babesik gabe ez baikenuke gure kirol-jarduera aurrera eramateko lekurik izango.

Gure bideari hasiera eman orduko, egunetik egunera partaide kopurua etengabe igotzen hasi zen herrian, eta boxeoarekiko dagoen interesa agerian geratzen. Joera horregatik espazio falta dela eta, laster gelditu ginen partaide berriak onartzeko aukerarik gabe. Debako eta inguruko herrietatik

etorritako adin, genero zein jatorri ezberdineko pertsonaz osaturiko talde anitz bezain aberatsa osatu dugu hasi eta berehala. Aniztasun horretaz harro sentitzeaz gain, gure kirol elkartearen nortasunaren oinarri ere egin dugu.

Entrenamenduak joan eta entrenamenduak etorri, buru-belarri gabiltza boxeolariak trebatzen eta beren garapenerako beharrezko dituzten baliabide zein ezagutza guztiak eskaintzen. Lan horren ondorioz, gure kirolariak lortzen ari diren mailarekin eta duten bilakaerarekin oso gustura gaude, eta horrek gure bidean gogor borrokatzen jarraitzeko indarrez betetzen gaitu. Aurten, pandemiaren aurrean harturiko neurriek utziz gero, boxeolari batzuk lehiatzera ateratzeko asmotan gabiltza. Horretarako, kirolari horien prestakuntza berezian ere "jo ta su" ari gara ahalik eta emaitzarik onenak lortzea helburu. Ea zortea dugun eta berandu baino lehen Debara garaipenen bat ekartzetik daukagun!

Epe ertainera, gure kirol elkartearen bilakaerarekin jarraitzeko, espazio fisiko handiago eta egokiagoa lortzea da gure helburu nagusia, boxeo egin nahi duten herritar guztiek horretarako aukera izan dezaten. Izan ere, kirol elkarte bezala hazi eta ahalik eta kalitate oneneko boxeolari kopuru handiena lehiatzeko prestatu ahal izateko ezinbesteko pausoa dela deritzogu.

Etorkizunari begira, gure kirol elkartearen bidez boxeo Deban sendo errotzea nahi genuke eta, beste kirol elkarteek bezala, gure ekarpenaren bidez egonkortasuna eta espazio propio bat lortzea. Horretarako, beste kirol elkarteekin, eragile sozialekin zein erakundeekin elkarlanean aritzeko prestutasuna dugula nabarmendu nahi genuke.

Besterik gabe, aurrerantzean gure nondik norakoen zein kirol-lorpenen berri ematen jarraitu ahal izango dugulakoan agurtzen zaituztegu.



Emakumeen inguruko bi proiektu Tene Mujika Bekaren irabazle



Urtarrilaren 18an jakinarazi zuten nork jaso dituen aurtengo Tene Mujika sariak. Normalean sari bakarra banatu ohi dute urteroko sariketa honetan, baina aurten bi beka banatu dituzte Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak.

Helburua Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzea da. Aurten, beka horri esker, Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek amatasunari eta feminismoari buruzko elkarrizketa sorta bat landuko dute, eta Jon Abrilak emakumeen lanbideei buruzko ikerketa bat egingo du.

Antolatzaileen esanetan, «aurten proiektu ugari eta maila handikoak aurkeztu ziren», eta horregatik horien guztien artean saria bi lani *ex aequo* ematea erabaki du Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaia.

Debako Udalak, berriz, saria bitan banatu ordez, bikoizteko erabakia hartu

du beste behin ere: 6.000 euro irabazle bakoitzarentzat. Irabazleek urtebeteko epea izango dute proposatutako lana burutzeko, eta 2022an liburu gisa plaza-ratuko ditu biak Elkar argitaletxeak.

Irabazleak:

Erika Lagoma Pomar (Lesaka, 1981) eta Estitxu Fernandez Maritxalarrek (Lesaka, 1975) amatasun disidente eta feministak erakutsi nahi dituen elkarrizketa sorta bat osatuko dute: «Amaren irudi patriarkal estereotipatuaz gaindi, eta *superwoman*-en amatasun neoliberaletik urruti, egungo sistema zalantzan jarri nahi duten ama izateko modu desberdinak: askotarikoak, errebeldeak, kontraesanei uko egiten ez dietenak».

Jon Abril Olaetxea (Bera, 1976) kazetari eta kultur dinamizatzailerak, berriz, Euskal Herrian emakumeek izan dituzten lanbideak bildu nahi ditu proiektuan: meatzariak Gallartan, galletagileak Bilbon, kontserbagileak Ondarroan eta Lodosan, metalurgia-koak Gasteizen, ehungintzakoak Bergaran, zigarrogileak Donostian, paper fabrikakoak Atarra-bian, neska-meak Lapurdiko kostan, espargingileak Zuberoan... *Ezkutatutako eskuak: emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian* izena du proiektuak.

Deba 100 hitzetan literatur lehiaketaren seigarren edizioa egingo da aurten

Martxoaren 18ra arteko epea dago Cardenas fundazioak eta Debako Udalak antolatzen duten "Deba 100 hitzetan" literatur lehiaketaren seigarren edizioan parte hartzeko. Euskarazko eta gaztelaniazko modalitateak egongo dira lehiaketan eta edo nork har dezake parte bertan.

Gaia Deba da orokorrean; alegia, idazlanak haren historiarekin, paisaiarekin edota, zuzenean edo zeharka, harekin lotuta dagoen edozerekin zerikusia izan beharko du. Lanek ez dute 100 hitz baino gehiago izango (izenburua alde batera utzita). 350

euroko bi sari banatuko dituzte hizkuntza bakoitzeko; bata, 350 eurokoa, Deban erroldatuta dagoen onenari, eta bestea, 350 eurokoa, guztien artean gailentzen denari.

Lanak Turismo bulegoan aurkeztu beharko dira martxoaren 18a (14:00) baino lehen -paperean edo euskarri digitalean-. Epaimahaia Kultura saileko teknikariak aukeratutako pertsonak osatuko dute, eta lan guztiak antolatzailerak eskuetan geratuko dira gero (lanen hedapen-eskubideak ere bai).

Oinarriak ikusteko edota informazio gehiagorako: www.deba.eus.



IBON URKIA

Ostikoketa

Iluntzerako, etxeratu eta lege zaharreko transistorea piztu orduko esataria txilio batean. Ba ote? Futbol partida gaur ere. Xinpatiko itxurako txantxangorriaren txorrotxia behar-rean, belazarra dirudi orroka. Izan ere, partida egokitzen den aldiro bele bihurtzen da Eitb-ko txantxangorri otzana. Halakoxea da denon irrati publikoaren politika. Ohiko albistegia zokoratu eta erabateko lehentasuna emana zaie bertako futbol taldeen partida emankizunei. Ez dugu, nonbait, gertakari garrantzitsuagorik.

Bada kantu bat, Xabier Letek abesten zuena. Hitzak Basarrirenak dira:

*Futbola gora, futbola bera,
jendearen zoramena
urte auetan ori da nunbait
oso modan dagoena.
Iñork jakin nai badu gaur zein den
ofiziorik onena
ostikalari oiek daukate
irabazi geiena.*

*Mutiko denen amets bakarra
ostikoketan asteko,
anka-belaunek ainbat baliyo
zutenik ez nun usteko,
ainbeste urtez zertan nekatu
karrera ikasteko?
Futbola bezelakorik ez da
milloiak irabazteko.*

Beste hiru ahapaldi baditu kantutak, ildo berekoak hirurak. Lehengo lepotik burua, ezer gutxi aldatu dira kontuak harrezkero.

9.066.529 euroko aurrekontuak onartu ditu Debako Udalak

1.090.562 euro izango ditu Itziarko Auzo Udalak eta 586.402 euro Deba Musikal Patronatuak



Urtarrilaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran onartu ditu udalbatzak 2021erako aurrekontuak, EH Bilduren (6) eta Debarren Ahotsaren (4) aldeko botoekin. EAJ-PNVk kontra bozkatu du. Debako

Udaleko aurrekontua 9.066.529 eurokoa izango da. Udal gobernuak egindako proposamenari hainbat ekarpen egin dizkio oposizioak eta horietako batzuk txertatu egin dira 2021erako onartu den aurrekontuan.

Beti ere pandemiak sortutako egoera aintzat hartuz, lanketarako hainbat oinarri izan dituela azaldu dute: Gobernu Plana bideorri hartzea eta neurriak gauzatzen joatea; Gizarte Politiketako eta Berdintasuneko batzordeak indartzea; euskara sustatzen jarraitu, eta kultura eta kirol jarduerak, ahal den neurrian, berreskuratzea; ingurumenean eragina duten ekintzak aurreikustea; 2020an landutako merkataritza berrindartzeko plana aintzat hartzea eta udalerrria hobetuko duten proiektuak edota inbertsioak aurreikustea.

Gizarte Politikei dagokionez, adinekoen prebentzioa eta eurei zuzendutako zerbitzuak indartzea, herritar zaugarrienei dirulaguntzak ematen jarraitzea eta indartzea, haur eta gaztetxoentzat Zaintza Sarea eta Hezkuntza Errefortzua antolatzea, etxebizitza alokairua bultzatzeko dirulaguntzak martxan jartzea (DAREN ekarpena), Aniztasun Plana garatzea, adinekoen zentroaren beharri buruzko azterketa egitea (EAJren ekarpena)... dute helburu.

Berdintasuna eta Parte-Hartzeari dagokionez, iaz onartutako II. Berdintasun Planean bildutako ekintzak gauzatzen hasia: formazioak antolatzea, helduentzako gida morea argitaratzea...

Gainera, etxebizitzaren inguruko galdeketa, Zumardiari buruzko parte-hartze prozesua eta auzokako bilkurak ere martxan jartzea aurreikusi da.

Tokiko Garapenari dagokionez, berriz, honakoak aurreikusi dira: merkaturia indartzea, San Roke eta Santa Katalinako bideak konpondu eta Artzabalgo espaloia egitea, bertako merkataritza sustatzeko ekintzak gauzatzea, natur bideen balioa aintzat hartzea, eraikin publikoen ziurtagiri energetikoa egitea, aldaketa klimatikora egokitzeko ekintza plana osatzea, eta hezkuntza eta kirol instalazioak hobetzen jarraitzea.

Udal antolaketa dagokionez, aparkalekuen berrantolaketa landu eta martxan jartzea, argiteria publikoa eguneratzen hasia, desfibriladore-gune berriak sortzea... eta gainontzeko alderdiekin, IAUrekin edota Itziarko enpresa parkearekin, eta udalerriaz gaindiko instituzioekin elkarlanean jarraitzea ere bai.

Kultur eta Herri Ondareari dagokionez, euskarari bultzada ematen jarraitzea da asmoa. Gainera, kultur jarduerak indartu eta *Karsta eta Gizakia* aurre-historiari buruzko proiektua martxan jartzea aurreikusi da. Horiez gain, festa izaera duten jarduerentzat diru-poltsa bat sortu da, egungo egoera dela eta oraingoz zein ekintza antolatu daitezkeen aurreikusi ezin delako.

Udal aurrekontua 8.804.385€koa izango da, IAUrena 1.090.562€koa eta Deba Musikal Patronatuarena 586.402€koa. Udalaren kasuan, 850.000€ aurreikusi da inbertsioetarako; horietatik esanguratsuenak honakoak izango dira: Luzaro eskolako aterpea eraikitzea, Artzabalgo espaloia egitea, San Roke eta Santa Katalinako bideak konpontzea, Arrantzale kalea atontzea, Gaztelekuko leihoak, Errotazarren LED argiak jartzea, padel pistak (DAREN ekarpena), Haurreskolako pertsiana, Aldats frontoi-ko sarea, webgunea berritzea, Calbeton zumardiko fatxada...

iritzia



**KETXUS
AMASORRAIN**

Zure irribarrea galdu dudanetik, gauza asko galdu ditudala konturatzen ari naiz. Ez zara urrutira joan, ez dizut gaitzik egin, ez gara haserretu, baina zure irribarrea galdu dut eta ez dakit nola berreskuratu.

Zure irribarrea galdu dudanetik, neurea ere itzali didate, irekita utzitako leihotik konturatu gabe sartzen den haize bolada xumeak kandela burua amatatzen duen moduan.

Zure irribarrea galdu dudanetik, gure elkarriketen kolorea itzalduz joan da eta gai bakarra daukagu mintzalagun, gai aspergarria, errepika-korra...

Zure irribarrea galdu dudanetik, Laboa handiaren akorde minorrek minorrago dirudite eta gitarra beretik Artzek horren maite zuen txoria hiltzorian kanporatzen imajinatzen dut, hegoak

Zure irribarrea galdu dudanetik

ebaki dizkieten askatasun kantua. Irribarrea galduarazi didanari hegoak ebaki bagenizkio, ez ginatkeen gauden moduan egonen.

Zure irribarrea galdu dudanetik, hondartzako pasealekuari darion kresalak ez dauka usain bera eta pasieran gurutzatzen ditudan aurpegiek ere irribarrea galdu dutela ohartu naiz.

Maskara jarri dizutenetik, zure irribarrea galdu dut, eta zure irribarrea galdu dudanetik hainbeste gauza galdu ditut..., galdu ditugu. Amets egiten dut zure irribarrea berreskuratuko dudan egunarekin, neurea ere berreskuratuko baitut; elkarriketak berrituko kolorez beteko dira, kresalak berrituko itsaso usain erakargarria jantziko du, pasealekuko aurpegiak baikortuko dira eta Laboaren gitarratik Artzeren txoria hegan ateratzen ikusiko dugu, aske.

Erakusketa eta mahai-ingurua Burgosko Prozesuaren 50. urtemugan

Burgosko Prozesuari buruzko erakusketa izan da ikusgai urtarrilaren 30etik otsailaren 14ra Santa Maria elizako klaustroan.

Burgosko Prozesuaren 50. urteurrenean, erakusketa honek gertaera historiko haren testuingurua azaltzen du, baita Euskal Herriaren hurbileko historian izan duen eragina ere. 1970-2020 *Burgosko Prozesua. Frankismoari epaiketa* egitasmoak garaiko 173 dokumentu eta testigantza jarri ditu ikusgai Deban.

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu du erakusketa, Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrarekin batera, Euskal Herriaren hurbileko historiari eta lurraldean izandako giza eskubideen urraketari buruzko memoria bultzatzeko ahaleginean.



Epaiketa hura gertatu zen testuinguru historikoan sakondu nahi izan du erakusketak. Hiru bloke ditu: lehenengoan, Burgosko Prozesua gertatu zen testuinguru historikoa islatzen da; bigarrenean, giza eskubideen urraketak eta frankismoak eragindako errepresioa azaltzen dira; hirugarrenean, berriz, epaiketan gertatutakoa kontatzen da.

Abenduaren 3tik 9ra bitartean, ustez Meliton Manzanasen heriotzan parte hartzeagatik 16 euskal herritar prozesatu zituzten. Erakusketaren hirugarren blokean gertakari horiek guztiak aztertzen dira, giza eskubideen ikuspegitik.

Udalaren bizikidetzat batzordearen eskariz izan da erakusketa Deban eta Euskal Herriko beste hainbat herritan ere izango da laster ikusgai.

Bestetik, otsailaren 11n mahai-ingurua izan zen Kultur Elkartearen. Bertan, Burgosko epaiketan prozesatu zuten Itziar Aizpurua debarra eta Javier Bucos Aranzadi Zientzia Elkarteko historialari eta *Burgosko Prozesua, Frankismoari epaiketa* erakusketaren egilea solasean aritu ziren gaiaren inguruan. Osasun egoerak eragindako edukiera mugatua izanik, mahai-ingurua Udalaren YouTube kanalean ere dago ikusgai.

Begiradak-2021en parte hartzeko izen-ematea zabalik



Azken urte hauetan egin den modura, aurtengoan ere, ondo bidean, uztailean

Begiradak emanaldia izango dugu *Iturri Ondoan* egitasmoaren barruan.

Begiradak ez da ikuskizun arrunta, ordea, emanaldi honetan herritarrek dira protagonista. Hori horrela izanik, zabaldu dugu dagoeneko egitasmoan parte hartzeko deialdia.

Beraz, idazteko zaletasuna baduzu, edozein koaderno zaharretan, edo paper iskinetan zirriborrazten dituzun poemek, ipuin zoro, edo narrazio labu-

rrek... guzti-guztiak dute lekua *Begiradak*-en.

Marraztea dela zure denbora-pasa maiteenetako bat? Ia dutxara ere sartzen zarela kamera edo bideokamera-ekin? Ba zuk ere baduzu *Begiradak*-en zer eskainia!

Parte hartzeko, deitu 688663744 telefono zenbakira edo idatzi ondorengo helbidera: euskara@deba.eus.

Gogoratu aurtengo deialdian izena emateko azken eguna otsailaren 26a (ostirala) izango dela.

Animatu familia handi honen parte izatera; pozik hartuko zaitugu!

BEGIRADAK *taldea*



EIDER ALDALUR

Urre likidoa

Iritsi da hainbeste aipatutako txertoa gure lurretara. Iritsi da salbazioa dirudien 0,3 ml-ko konponbidea. Urre likidoa. Dosi magikoa.

Inori ahaztu bazaio ere, orain bi hilabete txertoa zalantza izpirik gabe hartuko zuen "gizaameren" bat aurkitzea ez zen erraza. Denok, neuk barne, nahiago genuen besteek har zezatela aurrena eta ondoren, jada efektuak baloratzean, geuk hartu. Bi hilabete eskasean, ordea, egoera guztiz irauli da eta orain nork hartuko lehian gabiltza. Hor daude txertoa hartzeko protokolo bat eta hurrenkera bat dagoela ulertzen ez duten osasun sistemako karguak eta politikariak, esaterako. Halako klase politikoarekin zer espero zitekeen ba?

Txertoa, komunitate zientifikoak egungo pandemiari, Covid-19ari, aurre egiteko garatu duen tresna da. Eskerrak, egun, urteetan burututako ikerketari eta ditugun gaitasun zientifikoei esker posible dela kristalezko ontzi batean birus bati aurka egiteko dosia izatea. Adibide honek agerian uzten du ikerketan inbertsioak burutzearen garrantzia eta ikerketa munduko prekaritate maila kezagarria erradikatu behar diren funtsa.

Horrez gain, industria farmazeutikoaren eskuetan geratu da txertoaren produkzioa eta salmenta. Nola liteke "osasun" gisako hitz potoloa kapitalismo basatiaren eskuetan laga izana? Orain, finantzaketa publikoarekin bultzatutako hainbat ikerketa gutxi batzuen poltsikoak betetzeko erabiliko dira. Ikerketan inbertitutako guztion diru hori txertoen salmenta atzeratu eta garestitzeko baliatuko da. Prest al gaude gure osasuna enpresa baten interes komertzialen eskuetan lagatzeko?

“Gerra kontseilua ez zen hamasei akusatuontzat antolatu, gure bidez Euskal Herria epaitzeko baizik”

50 urte bete dira 2020ko abenduan Burgosko Prozesua izan zela. Gerra kontseilu hartan 16 euskal herritar epaitu zituzten, bi apaiz tartean. Itziar Aizpurua debarra izan zen epaituetako bat, Jokin Gorostidi, bere senarra, beste bat. Epaiaketak aurrekaririk gabeko oihartzuna izan zuen, baita nazioartean ere. Horren seinale da hainbat liburu idatzi direla auziaz; idazle ezagunen literatur-adierazpenak ere inspiratu zituen. Gertaera historikoaren testigantza zuzena jaso nahiak eraman gaitu Aizpuruarengana.



Testuinguru politiko konkretu batean gertatu zen Burgosko Prozesua...

Bai, 1936-39 gerratearen ondorengo iluntasun eta isiltasuna ziren nagusi.

60ko hamarkadan borroka molde berriak agertu ziren: lurraldetasuna eta independentzia ekonomiko politikoa ezinbestekotzat jotzen ziren “Euskal Herria” ulertzeko. Mugimendu sozial eta politikoa asko handitu zen, grebak...

Eferbeszentzia kulturala bizi genuen: artea herriratu, ikastolak, eskola sozialak eta gau-eskolak sortu... Aberri Egun eta maiatzaren lehenera joan, ikurriña toki garaienetan jarri... Arrisku handikoak, hori guztia debekatuta baitzegoen.

Birsortze horri politikoki bide egin ziona ETA izan zen, 1958an jaioa.

Horrek guztiak errepresio handiagoa ekarri zuen: salbuespen egoerak, atxilotketak, deserriratzeak... (apaizak ere bai); torturak salatuz 339 apaizek eginiko agiriak sona handia izan zuen Estatu osoan.

Gazteen borroka zigortu nahi zuten, Euskal Herria berpiztu izana. Hor datza 31/69 Gerra Kontseilu guztiz Sumarioa.

Auziperatuei hainbat ekintza leporatzen zizueten, besteak beste Meliton Manzanos-en erailketa.

Hark gerra egin zuen Francorekin, GESTAPOren kolaboratzaile, polizia-inspektore..., Gobernuak “Cruz del Mérito Policial” eman zion 1964an, eta hil eta 33 urtera “Medalla al Mérito Civil”.

Torturatzaile petoa: sekula ez dute ahaztuko hori bere eskuetatik pasatako milaka gipuzkoarrek.

1970eko abenduaren 3an hasi zen prozesua, gaur egungo Euskararen Egunean. Nola oroitzen duzu egun hura?

Zoramena! Elkar ikusi, besarkatu... Elkartasun eta maitasun-giroa zegoen. Bazitekeen lehen eguna azkena izatea ere epaiketa planteatu genuen eran: Franco eta bere erregimena akusatuok epaituko genuen, eskuburdinekin eta polizia militarrez zainduta. Beraz, ardura hori betetzeak dakarren kezka baina alai eta gogo biziz ekin genion gerra kontseiluari.

“Apurketa-epaiketa egin behar genuen, baina, era berean, saiatu behar ginen erregimen zapaltzaile eta faxista salatzen”

Alemania Federaleko Beihl kontsula bahitu zuen ETAk Donostian epaiketa hasi bezperan. Nola ulertu zenuten?

Garrantzi handiko ekintza, nazioartera begira batez ere. Gabon bezperan aske

uzteak, trukean ezer eskatu gabe, asko zioen. Anai Artean emandako prentsaurrekoan ETAk Alemaniako Gobernuari jakinarazi zion trukean ez zuela ezer eskatzen: “Gabon egun honetan, gure pentsamenduak Burgosen daude; hamasei aberkideekin, dakizun eran epaituak izan direnak eta heriotza zigorra gainean dutenak”. Ekintza argi eta indartsua.

Ezohiko defentsa estrategia baliatu zenuten. Zer diozu abokatuaren lanaz?

Apurketa-epaiketa egin behar genuen, baina, era berean, saiatu behar ginen erregimen zapaltzaile eta faxista salatzen. Gerra kontseilua ez baitzen hamasei akusatuontzat antolatu, gure bidez Euskal Herria epaitzeko baizik, garbi genuen. Abokatuengatik izan ez balitz ezingo genuen apurketa horrela burutu. Aibilezia ikaragarria erakutsi zuten galdeketetan, eta epai-mahaiko militarrei akats juridikoak aurpegitzen.

Gaizki atera zitekeela bazenekiten...

Akusatu bakoitzak gai bat genuen; euskara nik. Defendatu nuen Euskal Herriaren hizkuntza eta hezkuntzarako tresna bezala. Errepresioa nagusi zela eskoletan, fisikoa barne euskaraz hitz egiten bagenuen, gau eskolen funtzioa edonor alfabetatzeko... Militar batek “ate-itxiak” eskatu zion Ordozas presidenteari erregimena salatzen ari nintzela-eta (a zer estuasuna pasa nuen!).

Giza eskubideen nazioarteko begiraleak eta prentsa izan ziren prozesuan.

“Euskal Herria” munduan ezagutaraztea genuen helburu, hiru bidetatik: akusatuen konpromisoa azken muturre-raino eramanez, herriarekin batera epai- ketaren erritmoa mantenduz, eta gure ideario politikoa nazioartera zabalduz.

Horretarako, nazioarteko begirale eta kazetariak bagenituen epai-aretoan, eta horien artean Gisèle Halimi, Frantziako Ligako giza-eskubideen presidentea, baita nazien krimenen harira eraturako Russel tribunaleko presidente ere. Gainera, gure abokatuek egunero hotele- an prentsaurrekoa ematen zuten.

Epaitutako bi apaizak ziren. Nola jokatu zuen Elizak?

1953ko Concordato España-Santa Sede hitzarmenaren ondorioz, apaizak ezin zituzten jendaurrean epaitu; apaiz- zentzako kartzela berezia ere sortu zuten Zamoran! Azkenean ate-irekiz epaitzea lortu zen.

Irailan jaso genituen fiskalaren eska- erak: sei kiderentzat heriotza zigorra, Jokin Gorostidi tartean, hil artean nirekin Deban bizi izan den kide eta senarra.

Epaiketa baino lehen, gure senide batzuk Erromara joan ziren Pablo VI.aren- gana, epaiketa sala zezan. Haren erantzun- a izan zen auzia ate irekiz zela eta horre- kin bere betebeharra bete zuela. Errosario banarekin bidali zituen gure senideak.

Baina herriaren Eliza bestelakoa zen: herriaren taupadaz bizi zen, umil, langile, hurbil; gure bi kideak horren adibide.

Gipuzkoan hiru hilabeteko salbues- pen-egoera... Nola bizi izan zen Burgosko Prozesua Euskal Herrian?

Hango berri egunero ematen ziguten abokatuek. Mobilizazio ikaragarriak izat- en ari ziren Euskal Herrian, baita Estatuan, Europan eta Ameriketan ere; inoiz pentsatu gabekoak! Beraz, zetor- renari aurre egiteko poza eta ardura nagusi ziren gudan. Ordura arte garaile ginen!

Errepresio bortitza; indar errepresibo guztiak erabili zituzten: polizia, Guardia Zibila, militarra etab. Manifestazioetan, lau pertsona balaz zauritu zituzten (Hernanin eta Eibarren). Handik lau egu- nera, Eibarko bat, Roberto Perez Jauregi, hil egin zen. Eibarren inoiz ezagutu gabe- ko mobilizazioak izan ziren. Ordukoekin zor ikaragarria dut, kaleratzean hainbat

tokitan izan ginen biok eskerrak ematen.

Hilaren 9an epaiketa lehertu zenu- ten. Onaindiaren azken hitzak, “Eusko Gudariak”... nola oroitzen duzu hura?

Nola? Oihu, zarata, kolpe, ezpata, bultzada, Eusko Gudariak, esku-burdi- nak, ukabilak eta “Gora Euskadi!” “Desalojen la sala” koronelaren egonezi- na, eta gure garaipen-irribarre goxoen artean. Pasaeran nork bere abokatuari: “señor Letamendia renuncio a su defensa. Le prohíbo que me defienda”. Zoragarria!

Gela txikian gero denok besarkatuz, negarra begian eta irria ahoan. Herria eta nazioartearekin Francoren erregimena ukituta utzi genuen inpresio osoa dut.

“Euskal Herria sutan zegoela zioten. Nazioartean, berriz, ekintzez gain, Francori heriotza zigorrak konmutatzeko eskatu zioten gobernuburuek”

Abenduaren 28an, azkenean, epaia: denera 500 urte baino gehiagoko kartzela-zigorra eta bederatzi heriotza zigor.

Hunkituta baino areago hustuta senti- tu nintzen Jokinen bi heriotza zigorren berri izatean, ziur baikinen hirurak erail- ko zituztela. Jokinekin egoteko beharra nuen. Deitzea nahi nuen, fusilatu aurretik



gaua elkarrekin igaro eta bere haurra nire sabelean haziko zen esperantzaz.

Jokinek bere azken hitzak prestatuak zituen: “Hiru militante hiltzeagatik herri honen borroka ez dute geldiaraziko. Herriak indar gehiagorekin jarraituko du. Harro nago horrela hiltzeaz”. Fusilatuta hiltzeko erabakia hartua genuen, eta ez garrote vil-az, Espainiak indarrean zuena.

Momentu horretan mobilizazio gehiago izan ziren mundu mailan, ezta?


Euskal Herria sutan zegoela zioten. Nazioartean, berriz, ekintzez gain, gober- nuburuek Francori heriotza zigorrak kon- mutatzeko eskatu zitoten. Nazioarteko eskaerak oso kontuan hartzekoak ziren garai hartan Francorentzat.

70eko abenduaren 30ean, Francok bertan behera utzi zituen heriotza zigorrak, bizi osorako kartzelaren ordaine- tan. Nola gogoratzen duzu hura?

Hiru neskek kartzela-ganbara zantar batean, elurra mara-mara, eta azpiko arropa ere izoztuta goizero ziegan. Baina, une hartan abesteko gogoz! “Odol eta malkoz baina irabazi dugu!”. Jokinen argazkiak musuka jan nituen ia!

Francoren heriotzaren osteko indul- tuari esker kaleratu zineten azkenean.

1977an Jokin eta biok Bruselan elkartu ginen, hara eramanez baitzuten hegazkin militarrean J.M. Dorronsoro, X. Larena, M. Onaindia, eta T. Uriarterekin batera, “deportatu” gisara. Elkarrekin itzuli ginen Amnistiaren aldeko ibilaldian iza- teko Telesforo Monzonekin batera.



Itziar Aizpurua (Alcala de Henaresko kartzelan) eta Jokin Gorostidi (Cartagenako kartzelan), 1972an.

Deba-Itziar

BIRA



URTARRILEKO BIRA | SARIDUNAK



Mikel Irusta
Enara Castrillejo
Kontxi Mtz Uribarren
Beñat Escudero
Jagoba Egaña



Iker Vela
Naiara Larrañaga
Itziar Enbil
Aitor Zubikarai
Roke Arantzamendi

Itsasne Aldabaldetrek
Julen Altzibar
Eider Zulaika
Mari Seara
Nerea Lazkano

*Produktu sortak 2021/03/5 baino lehen jaso beharko dira, turismo bulegoan

OTSAILEKO BIRA:



1. Endoiako zein baserritan jaio zen Manuel Olaizola Urbietta bertsolaria?



2. Zein da ezkerreko argazkiko iturria?

- A) Antzondo bideko iturria
- B) Lizarbeko iturria
- D) Sasiolako iturria
- E) Ondaineko iturria



3. Nor da argazkian azaltzen den aktore eta zuzendaria?



4. Zein da "I said I would never talk about politics?" film laburreko sortzailea?

- A) Zuri Goikoetxea
- B) Aitor Oñederra
- D) Hirulan taldea
- E) Aritz Loiola



5. Nor izan zen euskaraz idazten zuen lehen emakume olerkaria?



6. Nork diseinatu zuen Debako Zentral Nuklearraren Kontrako Mugimenduaren sinboloa?

- A) Jose Ignacio Treku
- B) Eduardo Chillida
- D) Jorge Oteiza
- E) Jose Felix Igartua

PARTE HARTZEKO:

www.labor.eus/BIRA_otsaila

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Txindurri Iturri sagardotegiko
30 euroan baloratutako
bost produktu sorta
banatuko dira

Parte hartzaile guztien artean

Txindurri Iturri sagardotegiko
15 euroan baloratutako
hamar produktu sorta
banatuko dira

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **martxoaren 7a**

Irabazleen izenak martxoko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**

Ondarbeltzetik Debako zubirainoko errepide alboko pasealeku zatia egiteko lanak udan hasiko ditu Aldundiak



Gipuzkoako Foru Aldundiak Ondarbeltzetik Debako zubirainoko errepide zatian oinezkoen pasealekua egitea onartu zuen joan den otsailaren 9ko Diputatuen Kontseiluan. Modu horretan, Deba eta Mutriku arteko ibilbide osoan izango dute oinezkoek pasealekua.

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturako diputatuak otsailaren 10ean eman zituen proiektuari buruzko xehetasunak Debako eta Mutrikuko udal ordezkariekin batera egindako agerraldian. Adierazi zuenez, okerrik ezean, udan hasiko dira pasealekuaren azken zatiko lanak eta urrirako amaituta egotea aurreikusten dute.

Esku-hartze hori gauzatzeko lanok datozen egunotan aterako dituzte lehiaketara; 491.104 euroko aurrekontua du kontratuak eta bost bat hilabeteko gauzatzeko-epaia.

Gaur egun Urazamendikeko zeharbidetako espaloia dauka lehenengo 375 metroetan, baina, ondoren, Ondarbeltzera arte, ez dago ibilbide egokirik. Hasieran jarraipenik gabeko espaloia eta aparka-

tutako kotxeen artean ibili beharra dago eta ondoren, errepidearen bazterbidetik.

“Proiektua Ondarbeltzeko aparkalekutik ateratzen den espaloian hasten da eta estuarioaren ibilbidea jarraituz, eskoilera bat eraikiko da, saneamenduko hodia bertan joango delarik eta gainean oinezkoen pasealekua”, azaldu zuen Oiarbidek.

“Debako zubitik hasiz gero, lehenengo 375 metroetan gaur egungo espaloia aprobetxatuko da -gaineratu zuen-. Horren ondoren, pasealeku berrira sartzeko pasabide semaforizatua jarriko da eta, ondoren, ibaiaren ertzetik Ondarbeltzera iritsiko gara 460 metroko pasealeku berriatik”.

Ibilbide guztia argiztatu egingo da 20 luminaria bitartez.

Hainbat ekitaldi egingo dira Deba eta Itziarren martxoaren 8a dela eta

Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan martxoan zehar gauzatu den egitaraua antolatu dute Deba eta Itziarren. Debako Udaleko Berdintasun Sailera eta Debako Talde Feministarengana jo dugu haren berri izateko. Hona hemen:

Martxoaren 5ean, ostirala, “Ikusten ez den hori” kale-tertulia izango da, 18:00etan Foruen plazan.

Martxoaren 6an, “Nola eragiten dute irudiek nigan?” tailerra izango da, 11:00etan Kultur Elkartearen.

Martxoaren 8an, mobilizazioa izango

da 19:00etan Foruen plazan (*Berriketan*-en edizioa ixtean ordua oraindik zalan-tzan zegoen; ohiko bideetatik jakinaraziko da aldaketarik badago).

Martxoaren 12an, ostirala, “Erik eta Win” (Buameak) antzerki emanaldia izango da, 18:00etan Itziariko Burugorri.


Martxoaren 14an, igandea, haurren-tzako berdintasunaren inguruko ipuinak kontatuko dituzte Debako kontalariak, 17:00etan, Luzaro ikastetxeko frontoian. 7-12 urte bitarteko haurrei zuzenduak izango dira ipuinok.

Martxoaren 17an, asteazkena, “Humor, género y emociones” hitzaldia izango da Virginia Imazen eskutik, 19:00etan Kultur Elkartearen.

Martxoaren 21ean, igandea, “La boda de Rosa” pelikula proiektatuko da, 19:00etan Kultur Elkartearen.

Egitarau horrez gain, helduei zuzendutako liburu eta ikus-entzunezko ez-sexisten gida buzoneatuko du Udalak martxoaren 1eko astean herriko etxebizitzetan, ahalik eta herritar gehienengana irits dadin.

Udalerri mugakideetan egoera gehiagotan mugitzea baimendu du LABik



Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrien itxiera perimetralak bere horretan segituko du, baina mugakide diren udalerrien arteko joan-etorriak baimenduta egongo dira jarduera sozioekonomikoak egiteko eta aire zabalean kirola egiteko. Neurri berriak otsailaren 15ean sartu ziren indarrean, eta gutxienez martxoaren 5era arte mantenduko dituzte. Otsailaren 12an iragarri ditu neurriok Labik (gaitza Araban,

Bizkaian eta Gipuzkoan kontrolatzeko neurriak hartzen dituen); Labiren beraren batzorde teknikoak egindako txostenean oinarrituta.

Udalerrien itxiera perimetrala mantentzen bada ere, baimenduta egongo da mugakide diren udalerrien artean mugitzea kasu hauetan: lehiaketa profesionala edo erdi-profesionala egiten duten taldeen entrenamenduetarako eta lehiaketetarako; eremu gorrian ez dauden udalerrien arteko joan-etorriak baimenduta egongo dira baita ere federatu-

tako kirolarien lehiaketa eta entrenamenduetarako, eskola kiroleko entrenamenduetarako, gimnasio, kirol klubak edo kiroldegietako ikastaro edo jardueretan parte hartzeko.

Ostalaritzako epaiari helegiterik ez Bestetik, Iñigo Urkullu lehendakariak argitu du Jaurlaritzak ez diola helegiterik jarriko EAEko Auzitegi Nagusiak ostalaritzaren itxieraren aurka hartutako erabakiari, baldintza hauetan ez lukeelako «eraginkortasunik» izango.

Errigora herri ekimeneko produktuak zuhatzakideen eskura



Elikadura burujabetza sustatu eta Nafarroa hegoaldean, euskara ofiziala ez den zonaldeetan, euskara indartzeko Errigorak martxan jarri duen kanpainarekin bat egin du, berriz ere, Zuhatza Euskara Elkarteak. Interesa duten zuhatzakideek Nafarroa hegoaldeko produktuak eskatzeko aukera izango dute, ekoizlearen jatorrizko prezioan.

Oliba-olio birjina estrak (bost litroka), eta arroza, pasta eta kontserbek (hamabi ontziko sortetan) osatzen dute kanpainako eskaintza. Eskerak martxoaren 4tik 24ra bitartean egin beharko dira (www.errigora.eus webgunean edo 848 87 12 23 telefonora deituta) eta produktuak Deban jasotzeko aukera izango da apirilaren 27an. Ordainketak online egiteko

aukera izango da.

Elkarteko bazkideek kanpainan parte hartzeko eta egindako eskaerak eskuratzeko beharrezko informazio guztia jaso dute ohiko bideetatik. Era berean, produktuen katalogoa eta prezioen inguruko informazioa ale honetako kontrazalean dago eskuragarri. Edozein zalantza argitzeko deitu 943 19 13 83 telefonora.

Mila koloreko ideiekin martxa betean



Kaixo, kolorezale!

Iazko osasun krisiari buelta ematen ari gara! Kolorez beteriko ideiak martxan jarri ditugu eta azken bolada honetan bi ekintza egin ditugu herrian, azkena inauterietan. Arau eta azalpe-

nez beteriko ekintzak izan dira, baina oso pozik gaude emaitzarekin. Haur askok hartu dute parte eta ezarritako arau eta baldintza guztiak primeran bete dira.

Ohartuko zinetenez, taldean ere

kolore berri pila bat ditugu, eta horiek ere ideia anitzez ziprztintzen dute gure lorea. Mila esker gugan konfiantza jartzen duzuen guztioi. Inauterietako argazkiekin agurtzen zaituztegu.

Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea

URTARRILEKO
ZOZKETA
IRABAZLEA:
JULIA NIJS

NEREA LOIOLA
"HARRI BAT POLTSIKOAN"
(HAUR LITERATURA)
+
IÑIGO RUIZ
DE GORDEJUELA
"URJAUZIA" DISKOA - (JAZZ)

Zuhatza euskara
elkartea

OTSAILEKO
ZOZKETA
ZUHATZAKO BAZKIDEEN ARTEAN

ROTTEN XIII
PUNK-ROCK TALDEAREN
S. NEURRIKO KAMISETA + "OII BALDORBA" DISKOA

ZOZKETA EGUNA:
OTSAILAK 26, OSTIRALA
FACEBOOK BIDEZ

Zuhatza euskara
elkartea

- EUSKERAZ - BAGERA!

ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



AIORA FERNANDEZ

38 urte

Alde batetik, euskaraz sentitu, pentsatu eta ekiten duen pertsona naizelako; eta bestetik, elkarteak burutzen dituen ekintza desberdinekin (euskaraz, noski!), gure kultura nahiz tradizioak zutik jarrai dezan lan handia egiten duela uste dudalako.

Azkenik, aldizkarian parte hartzen duten boluntarioak zoriondu nahiko nituzke, batzuk urruti egon arren, beraiek ere posible egiten baitute hilero-hilero aldizkaria argitaratzea. Oso gustura irakurtzen ditut argitaratutakoak. Segi horrela! Ekinaren ekinaz egingo dugu aurrera.

PATXI AIZPITARTE

65 urte

Atsegina egiten zait Zuhatza Euskara Elkarteak argitaratzen duen *Berriketan* aldizkarian herriko pertsona, talde eta gertakizunen berri euskaraz jasotzea. Gainera, oso aldizkari anitza dela esango nuke, gai eta kolaboratzaileen aldetik. Eta kanpotik etorritakoa naizenez gero, debar batzuk ezagutzeko aukera ere eskaintzen dit.



MIREN PILARE GALARRAGA

62 urte

Txillardegik demostratu zuen ezagutzak ez duela erabilera bermatzen. Beharrak, ordea, erabiltzera bultza gaitzake. Beharrak sortzen ditu ZUHATZAK. *Berriketan* aldizkariari esker, adibidez, euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duenak biloba, iloba, seme-alaba edo lagunaren idatzia irakurriko du eta batek daki agian ohitura bihurtu. Hona hemen arrazoi bat. Hauxe arrazoietakoa bat.

JAGOBA EGAÑA

28 urte

Elkarteak kaleratzen duen hilabetekariak gure herriko egoera, dinamika eta proiektu ezberdinak herritarren ikuspuntutik zabaltzen dituelako. Baita ere irekia delako, adin, ideologia eta kultura ezberdinak errepresentatzen dituelako, eta batez ere euskaraz delako. Gure esku badago hau mantentzea, gure betebeharrak morala da bazkide izatea.





JUNE ETXABE:

"Hasieran klarinetearekin hasi nintzen eta beranduago oboearekin ere bai; bi instrumentuen soinua atsegin dut"

Gustuko du musika June Etxabek eta klarinetea eta oboea jotzen ditu azkenaldian. Bi musika tresna horiekin aritzen da, hain justu, Debako Musika Bandan. Bere zaletasuna hizpide hartuta elkarrizketatu dugu Mendatako ikasle debarra.

Ze instrumentu jotzen dituzu gaur egun?

Klarinetea eta oboea.

Zenbat urterekin hasi zinen instrumentu horiek jotzen? Eta zergatik aukeratu zenituen musika tresna horiek?

Klarinetea 3. mailan hasi nintzen jotzen eta oboea, berriz, aurreko urtean. Instrumentu hauen soinua atsegin dudalako eta asko erakarri nindutelako aukeratu nituen biak ala biak.

Debako Musika Bandan jotzen duzu gaur egun, ezta? Horrela bada, kontatuko al digu-

zu nola eman zizuten bertan parte hartzeko aukera?

Hasieran klarinetearekin hasi nintzen jotzen eta aurretik jada bi instrumentuekin parte hartzen dut Bandan. Bertan sartzeko aukera eman zieten nire gurasoei telefonoz, eta Bandako kideekin hitz egin eta gero sartzea erabaki genuen.

Asteazkenetan entsegu izaten dituzu Bandarekin? Eta ze iraupen izaten dute?

Bi entsegu izaten ditugu asteazkenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, bai klarinetearekin eta bai oboearekin, ordu erdikoak.

COVID-19aren egoerarekin nolakoak dira zuen entseguak? Aurreikusita daukazue emanaldien bat egitea, adibidez?

Bandako kideak banatu egiten gara bi taldetan entseguak egin ahal izateko. Bi metroko distantzia zaindu, gel hidroalkoholikoa erabili, musukoa derrigorrez erabili, atrilak garbitu... halako gauzak egin behar izaten ditugu. Emanaldiei dagokienez, alerta gorriaren harira, adibidez, ezin izan genuen entsegurik egin eta Santa Zeziliarako geneukan ohiko emanaldiarekin zer egin genezakeen ere ezin argituz ibili ginen azken momentura arte.



Prentsa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbieta, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babesleak:



AHOZKOTASUNARI BURUZKO TAILERRA EGIN DUTE MENDATAN

Aurten ere, Mendatako DBH 3. mailako ikasleek ahozkotasanari buruzko tailerra izan zuten urtarrileko azken astean eta otsailaren lehenengoan. Hainbat orduko lau klase izan zituzten gela bakoitzean, Urtxintxa elkarteko kide batekin.

Ekintza desberdinak egin zituzten ahozko adierazpenean murgildurik, esaterako, olerki ipuinak. Urtxintxako kideak ipuin labur bat kontatzen zuen eta ikasleek ipuin horren asmakizun txikia asmatu behar zuten. Horrez gain, hitzik egin gabe, keinu bidezko jolasak egin zituzten eta komunikazioari buruz ere aritu ziren; ikasleentzat zer da komunikazioa? Edo zer mota-tako komunikazioak daude?

Ikasleei tailerrean izan zuten esperientziaz galdetu ondoren, hainbatek esan zuten hasieran apurtxo bat



astuna izan arren gerora dibertigarriagoa izan zela. Horrekin batera, azpimarratu zuten Urtxintxako kideak beraien arreta deitzeko ahalegin izugarria egin zuela.

GOGOETAK

NOLA ALDATU DIRA HARREMANAK PANDEMIA GARAIAN?

Egun bizi garen testuinguruan guztiz aldatu dira gizakion arteko harremanak eta horren inguruan hausnartzen aritu gara geu ere. Hona hemen pare bat gogoeta:

Koronabirusaren ondorioz asko aldatu da gure eguneroko bizi-tza. Hasieran, duela urtebete gutxi gorabehera, bi hilabete eta pare bat egunez etxean geratu behar izan ginen. Arratsaldeko 20:00etan izaten zen gure ingurukoak ez ziren pertsonekin izaten genuen kontaktu bakarra, gogoratzen? Bada, dagoeneko ohitu egin gara.

Teknologia berriek ere pisu handiagoa hartu dute azken urtean, batez ere adineko pertsonen inguruan. Haien artean eragin handia izan dute bideo-deiek, internet bidezko egunkariak, argazki eta bideoak... Familia eta lagunaren artean distantzia sumatu da, egunero elkar ikustetik pantaila baten bitartez ikusi behar izatera, besarkadak fisikoki jasotzetik birtualki bidaltzera, momentuak buruan gordetzetik gailuetan gordetzera eta, dirudienez, horrela jarraituko dugu hurrengo urteetan.



Iaz ezagututako pandemiaren eraginez, teknologiak asko zabaldu dira nahitaez, bai gazteen artean, bai adinekoen artean. Baina ezberdintasun nabarmena dago horien artean: gazte gehienek bazekiten haiek erabiltzen eta adineko gehienek, aldiz, ez.

Neure burua adinekoen lekuan jarrita, ulertzen dut beraientzat ez zela erraza izango, gu hau dena existitzen zen bitartean jaio baikara eta

haiek, aldiz, ez. Beraiek modernitatera moldatu behar izan dira. Batzuei gustatu zaie, dibertigarria iruditu zaie eta beren familiakoekin komunikatzea ahalbidetu die. Beste batzuei, oster, ez zaie batere gustatu, estutu egiten ziren eta baita itxaropena galdu ere.

Baina denok gaude ados, teknologiak oso lagungarriak izan dira berrogeialdian. Gure lagun eta familiarengandik horren urruti ez geundela sentiarazten zigun, baita laster itzuliko ginela ere.

OTSAILAK 19, OSTIRALA

-19:00. **Dokumentala:** Argentinako abortuaren legearen inguruko "La ola verde", Kultur Elkartean. Debako Talde Feministaren eskutik.

OTSAILAK 21, IGANDEA

-12:30. **Ipuin kontaketak**, 7-12 urte bitarteko haurrentzat, Luzaro ikastetxean (Iifar kalean).

MARTXOAK 5, OSTIRALA

-18:00. **Kale-tertulia:** "Ikusten ez den hori", Foruen plazan. Talde Feministaren eskutik.

MARTXOAK 6, LARUNBATA

-11:00. **Tailerra:** "Nola eragiten dute irudiek nigan?", Kultur Elkartean. Talde Feministaren eskutik.

MARTXOAK 8, ASTELEHENA

-19:00. **Emakumeen Nazioarteko Eguna.** Mobilizazioa, Foruen plazan (ordua zehazteke).

MARTXOAK 12, OSTIRALA

-18:00. "Erik eta Win" (Buhameak) **antzerki emanaldia**, Itziarko Burugorriin.

MARTXOAK 14, IGANDEA

-17:00. Berdintasunaren inguruko **ipuin kontaketak**, 7-12 urte bitarteko haurrentzat, Luzaro ikastetxean.

MARTXOAK 17, ASTEAZKENA

-19:00. **Hitzaldia:** "Humor, género y emociones", Virginia Imazen eskutik. Debako Kultur Elkartean.

Literatur lehiaketa

-Cardenas fundazioak eta Debako Udalak antolatzen duten "Deba 100 hitzetan" literatur lehiaketaren seigarren edizioa abian dago. Martxoaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira lanak, Turismo bulegoan. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

"Begiradak"

-*Begiradak* emanaldia egingo da uztailean, *Iturri Ondoan* egitasmoaren barruan, eta izena emateko epea zabalik dago otsailaren 26ra arte. 688663744 telefono zenbakira deitu edo euskara@deba.eus helbidera idatzi dezakete interesatuek.

EuskarAbenturan izena emateko epea zabalik

-Osasun-egoerak ahalbidetuz gero, EuskarAbentura espedizioa bueltan egongo da 2021eko udan. Abenturan parte hartu nahi duten 2004 eta 2005 urteetan jaiotako gazteek martxoaren 12ra arteko epea izango dute proiektua eta aurkezpen-bideoa bidaltzeko -oraingo hautaketa-prozesuan, 2020ko espediziorako aurkeztutako hautagaitzak ere hartuko dira kontuan-. Deialdiaren inguruko informazio guztia www.euskarabentura.eus atarian dago ikusgai.

KZgunea

-KZguneak YouTubeko hitzaldiekin eta ikastaroekin jarraitzen du. Otsailean goizez egongo da zabalik, eta martxoan arratsaldez. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunea.eus.

ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **otsailak 26, 27, 28.**
martxoak 8, 9, 10, 11.

Burgoa Zuazo: **otsailak 22, 23, 24, 25.**
martxoak 12, 13, 14.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: martxoak 6 eta 13
BURGOA ZUAZO: otsailak 20 eta 27

9:30 - 13:00



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!



943 191 383

berriketan@zuhatza.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

LIZ.-ZK.: 3 **Taxi Alain Deba** WiFi

www.taxideba.eus **636 135 008**
alain@taxideba.eus

MARIJE CASTRO IRIBARREN



- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA **28 URTEKO ESPERIENTZIA**

Tel.: 677 557 615 **DEBA**

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

A **D**

ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

urlo  N.º 379

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxo: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ieraenea
KOBURGIA

"maite ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



k
kutxabank

sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztiaren zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843





Zuhatza
deba

Martxoak 4 - 24

Nafar hegoaldeko uzta
Zuhatza Euskara Elkarteko
bazkideen eskura

Plateretik baratzera

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arrosa, pasta eta kontserbak -12 ontzika- ekoizlearen jatorrizko prezioan eta egindako eskaera Deban jaso apirilaren 27an.

ESKAERAK

www.errigora.eus
webgunean edo
848 87 12 23
telefonora deituta

Biosasun Enara

EKO

Arroitz
Oliba-olio birjina estra ekologikoa
5 LITROKO ONTZIA
33€ 6.60€/l

Bardea La Casa del Aceite

EKO

Arbekina
Oliba-olio birjina estra ekologikoa
5 LITROKO ONTZIA
32€ 6.40€/l

La Casa del Aceite

Pikual
Oliba-olio birjina estra
5 LITROKO ONTZIA
19€ 3.80€/l

Castillo de Abiltas

Enpeltre
Oliba-olio birjina estra
5 LITROKO ONTZIA
19€ 3.80€/l

EKO

Pasta
Makarroi (x4), albaka-fussilli (x4) eta tagliatelle (x4) ekologikoa
400GR-KO 12 PAKETE
35€ 2.92€/u

El Escalar Iturri La Churta

EKO

Zainzuriak
Zainzuri zuri ekologiko lodiak (6/12)
370ML-KO 12 ONTZI
45€ 3.75€/u

El Agricultor El Escalar Iturri

Zainzuriak
Zainzuri zuri lodiak (8/12)
425ML-KO 12 ONTZI
43€ 3.58€/u

Iturri

EKO

Piperrak
Pikillo piper ekologiko osoak (9/12)
250ML-KO 12 ONTZI
37€ 3.08€/u

El Agricultor El Escalar

Piperrak
Pikillo piper osoak (18/22)
425ML-KO 12 ONTZI
43€ 3.58€/u

Ebrón

EKO

Orburuak
Orburu bihotz ekologikoak
720ML-KO 12 ONTZI
77€ 6.42€/u

Ebrón Maria Jesús

Orburuak
Orburu bihotzak
720ML-KO 12 ONTZI
53€ 4.42€/u

La Churta

EKO

Kardua
Kardu zuritu ekologikoa
720ML-KO 12 ONTZI
29€ 2.42€/u

Ebrón

Kardua
Kardu zuritua
720ML-KO 12 ONTZI
21€ 1.75€/u

Ebrón

EKO

Menestra
Barazki-menestra ekologikoa
720ML-KO 12 ONTZI
65€ 5.42€/u

Ebrón

Barazkiak
Borrajá (x6) eta zerba penkak (x6)
720ML-KO 12 ONTZI
23€ 1.92€/u

Almanaque

EKO

Potxak
Potxa ekologikoak
720ML-KO 12 ONTZI
43€ 3.58€/u

Almanaque

Potxak
Potxa zuri eta berdeak
720ML-KO 12 ONTZI
35€ 2.92€/u

Enara La Churta

EKO

Tomatea
Tomate frijitu ekologikoa
370ML-KO 12 ONTZI
21€ 1.75€/u

Pedro Luis

Tomatea
Tomate frijitua
370ML-KO 12 ONTZI
19€ 1.58€/u

Pedro Luis

EKO

Kremak
Barazki-krema ekologikoa
500ML-KO 12 ONTZI
28€ 2.33€/u

La Churta

EKO

Txitxiriok
Txitxirio ekologikoa
720ML-KO 12 ONTZI
27€ 2.25€/u

El Alcaraván

EKO

Arroza
Arroz zuri erdiluze ekologikoa
KILOKO 12 PAKETE
43€ 3.58€/u

El Alcaraván

Arroza
Lido arroza
KILOKO 12 PAKETE
22€ 1.83€/u